

TMB el reciclaje es un montaje

Bizkaiko hiri-hondakinak tratatzen dituen TMB Arraiz Aldi Baterako Enpresa-Elkarteko (ABEE) enpresa-batzordeak (ELA-LAB-UGT) urtebete baino gehiago darama plantaren egoera salatzen. Enpresa esleipendunak, Garbikerren eskutik, instalazioak hondatzen utzi ditu martxan daramatzaten hamar urteetan, hori saihesteko inolako neurririk jarri gabe.

Horren ondorioz, gaur egun, bai egitura bai makineria erabat hondatuta daude. Valoriza-Eco enpresak ez du oraindik horri buruzko neurririk hartu, eta egunero jartzen ditu arriskuan lantegiko langileen osasuna eta bizitza. Gainera, ahaztu egiten du zertarako zen. Azken asteetan, langile bat ospitalean artatu behar izan dute odoleko karbono monoxido maila altuagatik. Horren aurrean, eta enpresak neurri egokiak hartu nahi ez zituela ikusita, Batzordeak lan-agintaritzari abisua ematea eta jarduera geldiaraztea erabaki zuen. Ez da kasu isolatu bat, ohiko enpresa-praktika bat baizik.

Arraiz TMB ABEEko zuzendaritzaren utzikeriagatik eta Aldundiaren kontrol faltagatik sortu den egoerak eragin du lantegian ia ezer ez birziklatzea, bereizketa kabina batzutan langileak falta direlako eta batzuk hutsik daudelako eta makinak egoera tamalgarrian daudelako mantentze-lan eta garbiketa faltagatik.

Horrek guztiak gure osasuna arriskuan jartzen du, baita Bizkaiko birziklapenaren kalitatea ere.

Horregatik eskatzen diegu Aldundiari eta Garbikerri premiazko neurriak hartzeko eta gure segurtasunari eta osasunari preziorik ez jartzeko. Ez dugu ezer txarrik gertatzen nahi. Era berean, prebentzio-neurriak zorrotz kontrolatzea eta Valoriza-Eco hiri-hondakinak tratatzeko instalazioa gehiago hondatzen ez jarraitzea eskatzen dugu.

El Comité de empresa de la UTE TMB Arraiz (ELA-LAB-UGT), dedicada al tratamiento de residuos urbanos (contenedores de fracción resto) de Bizkaia, lleva denunciando la situación de la planta más de un año. La empresa adjudicataria, de la mano de Garbiker, ha dejado que las instalaciones se deterioren durante los diez años que lleva en funcionamiento, sin poner ningún tipo de medida para poder evitarlo.

Esto ha generado que a día de hoy, tanto la estructura como la diferente maquinaria estén en un deterioro absoluto. La empresa Valoriza-Eco sigue sin tomar medidas al respecto y pone en peligro todos los días la salud y la vida de las y los trabajadores de la planta. Además, olvida el cometido para el cual estaba destinada la misma. En las últimas semanas un trabajador de la planta tuvo que ser atendido en el hospital por altos niveles de monóxido de carbono en sangre. Ante este hecho, y viendo que la empresa no quiso tomar las medidas oportunas, el Comité decidió dar aviso a la autoridad laboral y paralizar la actividad. No es un caso aislado sino una práctica de empresa que se da de manera habitual.

La situación a la que se ha llegado por la desidia de la dirección de la UTE TMB Arraiz y la falta de control de la Diputación ha generado una situación en la que casi no se recicla; tanto en las distintas cabinas de triaje donde falta personal y algunas incluso están vacías, como el estado lamentable de la maquinaria por falta de mantenimiento y limpieza.

Todo esto pone en peligro nuestra salud, así como la calidad del reciclaje en Bizkaia.

Es por esto que exigimos a la Diputación y Garbiker que tomen medidas urgentes y no pongan precio a nuestra seguridad y salud. No quisiéramos lamentar una desgracia mayor. Exigimos también que se tenga un control riguroso en medidas de prevención y no se le permita a Valoriza-Eco seguir deteriorando más la planta de tratamiento de residuos urbanos.